

FUNTSEZKO JARDUERAK

Pawsome enpresaren funtsezko jarduera zerbitzuak dira. Gure helburua animalien abandonaketa murriztea edo sahiestea da, horrez gain, abandonatutako animaliei bizi duin bat emateko aukera eskaintzen dugu.

Funtsezko jarduerari dagokionez, arazoak konpontzeko denda fisikoan konponbidea lortu dugu, baita sakeleko telefonoa baliatuz deitu ahalko dute proiektuaren telefonora eta baita sare sozialen bidez kontsultatu ahalko dute haien zalantzak gure kideei. Baita APP-aren barruan *chat* bat egongo da non bezeroak haien zalantzak argitu ahalko dituzte.

Plataforma jarduerari dagokionez, gure aplikazioaren bidez animaliak erreskatatzeko eta adoptatzeko zerbitzuak eskaintzen digu. Horrez gain, gure sare sozialen bidez (youtube, tik-tok, instagram,..) animaliak zaintzeko, hezitzeko, animalientzat onuragarriak diren produktuen gomendioak eman, eta antzeko zerbitzuak eskainiko ditugu. Horrela gure aplikazioa erabiltzen duten bezeroak adoptatutako animaliei bizi kalitate ona emateko gaitasuna izango dute.

Gure proiektuaren alderdi batzuk kanpoko enpresa batzuen eskuetan utzi ahalko ditugu baina beste batzuk ez, hauek espezializazio gehiago behar dutelako eta bakarrik gure pertsonala kudeatu ahalko duelako. Alde batetik, beste enpresa batzuei utzi ahal dezakegunak animalien garraioa edo finantza kontuak. Ezin ditugunak utzi besteen eskuetan oso garrantzitsuak dira, ezinbestekoak eta hauek plataformaren diseinua eta animalien jarraipenean datza. Jarduera hauei dagokionez, gure ahalmen guztia jarri dugu aplikazio erabiltzeko erraztasuna bermatzeko (baina baita puntu estetiko bat izateko, atsegina egiteko begietara, kolore hauekin atalak hobeto bereizten dira). Gainera, abandonatutako animaliak familia bat aurkitzean jarraipena egiteko jarduera eramaten dute gure kideak, horrela, animalien segurtasuna bermatzen dugu eta hau aurrera eramateko hurrengo hau egingo dugu: *jarraipen-chipa* jarriko diegu animaliei (eta *chip* hau gure APP-arekin lortzen dugun diruarekin erosi eta jarriko diegu) eta baita gure taldeko kide batzuk animalien egoera ziurtatuko dute animaliak adoptatu eta gero 3 edo 6 hilabete zehar ziurtatzeko haiek adoptatu duten familia ez duela animaliekiko indarkeria bultzatzen.

Beste gauza kontuan izan behar duguna da gure APP-aren bidez bezeroak ezingo dutela iruzur egiteko edo animaliak salerosketa egiteko erabiltzea, jarduera hauek debekatuta daude eta aurrera eramaten dituzten pertsonak poliziekin edo gizartearen ordenari eta ongizateari eustearekin zerikusia duten beste pertsona batzuekin harremanetan jarriko dira.